



EGIAK ISILDU AURRETIK

Zarauztarren testigantzetan oinarrituta,
36ko gerraz liburua idatzi du Amagoia
Gurrutxaga kazetari matxinbentarrak 20



HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.


INNOVA
HORTZ KLINIKA

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak
Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97

MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea
Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
www.sukaldeak.eus



UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea
Tel. 943 81 26 66 - 20730 AZPEITIA

Ziklomotor lizentzia eta gidabaimen guztiak

Prezio interesgarriak
Gidabaimena euskaraz
ateratzeko aukera

**ONDO PASAU
SANINAZIYUEK**



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 196.a (2017ko uztaila)
Urte. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarrria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. J. Frantzesena
Webgunea.
www.uztarrria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2017KO UZTAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? ||||||||||||



04



16



26

iritzia

Inkesta.
 Merenderoetara egunpasa joateko ohiturarik bai? **13**

mamia

Elkarrizketa.
 Azpeitian egiten du lan Iñaki Andres moda diseinatzaileak **04**

Klik! Tatuaje bat egiteko prozesua, irudietan **16**

Bost umeko familia.
 Artetxe-Aramendi familia ugariaren bizipenak, gertu-gertutik **26**

jakiteko

Bestaldetik. Juanjo Olaizola: trenak ogibide, pasio eta afizio **34**

Ba aL dakizu ETB 1eko 'Go!azen' telesaila grabatzen ari direLa aurten ere EskLabetako komentuan? **Uztarrria**

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

IÑAKI ANDRES

moda diseinatzailea

“Teknika berritzailea da hemen papirofLexia”

Arropa diseinatzen eta ekoizten du. Nazioarteko disko jartzaileen eta rap abeslari feministen jantzietan ikus daiteke, besteak beste, Iñaki Kilate sinadura. 📌 Lorea Seguro

Nerabezarotan Azpeitian bizi izan bazen ere, urte asko egin ditu Ibizan eta Bartzelonan Iñaki Andresek (Lezo, 1971). Gaztetatik moda eta diseinuaren munduak erakarrita, lagunentzat arropak josten hasi zen. Gerora eman zuen, ordea, mundu profesionalera jauzia. Iñaki Kilate sinadura bereganatuta, artistentzako eta ikuskizunetarako arropa diseinatzen eta ekoizten du orain. Familia Azpeitian duenez, bertan eta Azkoitian egiten du lan, eta etorkizuneko proiektuetan murgiltzeko ilusio handiz dago.

Iñaki Kilate bezala sinatzen dituzu diseinuak. Nolatan?

Izenaren jatorriak ez du misterio handirik. Lagun batek eta biok Katy Kilate izeneko denda bat

ikusi genuen behin, eta grazia egin zigun. Horregatik, hasieran Katy Kilate izena erabiltzen nuen. Gero, ordea, izen hori erregistratuta zegoenez, Kilate sinadurarekin gelditu nintzen.

Noiztik duzu modarekiko eta diseinuarekiko zaletasuna?

Oso gaztetatik dut gogoko mundu hori. 20 urterekin-edo, Azpeitian bizi nintzenean, Hernaniko jostun batengana joaten hasi nintzen, pixkanaka ikasteko. Gero, Ibizara joan nintzen, eta ondorengo 11 urteak Bartzelonan igaro nituen. Gauez egin izan dut lana ia beti, normalean, asteburuetan, denbora libre asko izaten bainuen. Lagunentzat arropa egiten hasi nintzen. Orduan ez nekien patrioiak egiten, beraz, beste ba-

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1971 ko apirilak 5.

|||**Herria.** Lezo. |||**Bizi tokia.**

Azkoitia. |||**Lanbidea.** Moda diseinatzailea eta ekoizlea.



tzuenak erabili behar izaten nituen. Garai hartan, arropa egitea zaletasuna zen niretzat, eta ahal nuen moduan moldatzen nintzen.

Noiz eman zenuen mundu profesionalera jauzia?

40 urterekin erabaki nuen pausoa ematea. Lana utzi eta ikasketei heldu nien berriz. Patroigintza Industrialera ikasi nuen Donostian, eta Ikuskizunetarako Jantziak, ondoren. Duela urte eta erdi hasi nintzen Kilate markarekin.

Edozein herritarrek jantzeko modukoak al dira zuk egindako arropak?

Arroparen munduan kopetentzia izugarria da, eta ez nuen nahi praktikak eta kamisetak egitea. Izan ere, zenbat eurotan saldu behar duzu galtza pare bat, ondoko dendan



Iñaki Andres origami teknikarekin deiseinu bat ekoizten. ||| **Iñaki Andres**

merke-merke badago? Besteen prezioan jartzeko, niri egitea kostatu zaidana baino merkeago saldu behar. Horregatik ez dut nahi arropa komertziala egiterik.

Arropa bereziagoa egiten duzu, beraz?

Artistentzako eta ikuskizunetarako arropa egiten dut, batez ere. Lagunengatik hasi nintzen mundu horretan murgiltzen; izan ere, Lola Von Dage nazioarteko disko jartzailea laguna dut. Ibizan ezagutu genuen elkar. Binilozko buzo batzuk eskatu zizkidan, eta horrela hasi zen guztia. Hala ere, gauza bereziagoak ere egin ditut: burukoak, minbizia duten emakumeentzat turbanteak, tatuatzaileen ztat eta zerbitzariarentzat aurreko mantalak...

Ehunekin origami estiloa lantzen duzu. Zein da teknika horren prozesua?

Origami teknika japoniarra da; hemen, papiroflexia deitzen zaio. Teknika hori ehunetan erabiltzen dut nik, eta arropari testura eta bolumen bereziak ematea lortzen dut. Kotoia erabiltzen dut normalean. Eskuzko lana da: arropa plantxatu egin behar duzu tolestutako bakoitzean edo puntada bat eman. Horrelako soineko bat egiteko hilabete oso bat behar izaten dut, gutxi gorabehera egunean zazpi orduz lan eginda. Lan handia eskatzen du.

Teknika berritzailea al da?

Hemen, bai, baina beste toki batzuetan, Japonian adibidez, ez.

Papiroflexiaz gain, zer

gehiago ikus daiteke zure diseinuetan?

Biniloa ere asko erabiltzen dut. Plastikoaeren antzeko materiala da. Lan egiteko askoz errazagoa da, sinpleagoa. Hemen inguruan ez dago teknika hori lantzen duen ia inor. Baina gehien gustatzen zaidana da origami teknika eta biniloa nahastea. Lehenengoa, artisaumateriala da, oso beroa. Bestea, berriz, modernoagoa, hotzagoa. Biak modelo berean nahasiz gero, oso kontraste interesgarria lortzen da.

Ze proiektu dituzu eskuen artean?

Orain, La Furia rap kantari feministarentzat ari naiz arropa diseinatzen. Disko bat kaleratu behar du laster, eta bideoklipetarako

arropa egin behar diot. Bestalde, Zumaiako bi neskekin proiektu bat egiten ari naiz. Bata argazkilaria da eta bestea makilatzailea, eta hiruron artean, euskal mitologiako pertsonaietan oinarritutako *performance* bat egitea nahi dugu. Mari, Basajaun, Lamiak, Zantantzar... Pertsonaia horiei guztiei buelta bat eman nahi diegu. Inspirazio iturri oso aberasgarriak direla uste dut. Izan ere, pertsonaia indartsuak dira, baina, nolabait, ahaztuta daude. Guk garikide egin nahi ditugu horiek, hor sorkuntza proiektu oso interesgarria dagoela uste baitut.

Pertsonaia horiek binilo ehun modernoekin nahasteak bisualki kontraste handia sortuko du.

Hori da helburua, baina, ondoren, *performance* bezala aurkeztu nahi dugu egindako lana, zuzenean, sua bezalako elementuak erabiliz. Oso hunkituta nago proiektuarekin, baina hastapenetan gaude, oraindik izenik ere ez diogu jarri.

Duela gutxi aldundiak argitaratutako GK Green Fashion aldizkarian agertu zinen.

Interes asko egoten dira horrelako proiektuen atzean, eta ez diseinatzaileonak, zehazki. Nik nahiago dut neure kasa ibiltzea.

Jendeak asko kontsumitzen du ehunaren industria. Gehienek, ordea, kanpoan ekoizten duten marketara jotzen dute.

Norbera askea da nahi duen tokian erosteko. Nik ere erosten dut denda handietan. Hala ere, uste dut gutxieneko informazio bat eduki beharko genukeela, jantzen dugun arropa non ekoitzi den eta nork egin duen jakiteko, atzean zer dagoen ezagutzeko.*

IKA Instalakuntza Elektrikoak
 argi lanak s.l.
 Urkia: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
 ikazargi@lanak@gmail.com www.ikasistemak.com
 20730 AZPEITIA

Aiortza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
 aiortzaautoak@telefonica.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Animaliak gara?

Animaliekiko ikuspegia asko aldatu dela nahikoa nabaria da. Lanerako makina edo elikagai soil izatetik, gizakia- ren pareko eskubideak izatera igaro dira denboran zehar. Animaliei ematen zaien tratua- ren aldeko edo aurkako iritzia izanda ere, hori horrela dela inork ezingo du ukatu. Ondorioz, kolokan daude egungo gizartean animaliei ematen zaizkien zenbait erabilera. Kultura edo ohitura izatea ez dira nahikoa argumen- tu, zenbait ekitaldi sostengatzeko. Beraz, ani- malien heziketan lantzen den sentiberatasu- narekin ez datoz bat hain gure ditugun festa giroko ekintza ugari. Etorkizunari begira, era- bakia kanpotik etorriko dela uste dut, eta une horretan agintean dagoenak kudeatu behar- ko du sortuko den liskarra. Izan ere, irudika- tzen al du inork Azpeitia zezenik gabe?

Garai batean, zezenketak eskaintzen zituz- ten medio publikoetan; egun, aldiz, gero eta saio gehiago eskaintzen dizkiete animalien defentsan diharduten pertsonari. Ez dago ongi ikusita animalien aurka egiten duten ja- rrerak bultzatzea, eta hor koka dezakegu so- kamuturra bera ere. Zezena beldurtuta senti- tzen denean, pertsonaren atzetik jotzeko joera du, eta horrek pertsonari jolaserako au- kera ematen dio. Jolas horrek adrenalina igotzen du, eta, ondorioz, jendea engantxatu egiten da. Pertsona txarrak edo hobeak izan, beste esparru batzuetan zenbait eskubide- ren aldarrikapenak egiten dituzten askok dute zaletasuna sokamuturrerako, baina ani- malien estatus aldaketarekin, are eta gehia- go dira haiei sortzen zaizkien kontraesanak.

Ahari jokoen afera ezaguna da gure he- rrian, eman zuen zeresanik bere garaian, eta oraindik ere ez dago gaia zeharo baretuta; idi, zaldi edo asto demak ere dianaren erdian daude, eta zakurrei ezin zaizkie isatsa edo belarriak moztu. Gainera, hor daude ani- maliei errendimendua baldintzatzeko asmoz ematen zaizkien produktuak. Alabaina, non dago muga? Agian, muga animaliek momen-




|||||||||||||egoitz arruti|||

||| Erromatarren garaian ohikoa zen gizakiak lehoietara jaurtitzea eta hura ikusiz ongi pasatzea

tuz ez dutela hitzik egiten izango da. Hala ere, animaliei ematen zaien tratuan argi dugu denok zenbait jokabide deitoragarriak direla, Mauleko hiltegikoak, kasu. Hari horri tiraka, piramidearen zein altueratan kokatu behar ditugu animaliak? Azken finean, animaliak eli- kagai izaten jarraitzen dute, eta ba ote da hil- keta duinik?

Muga lausoa

Historiari begiraturaz, erromatarren garaian ohikoa zen gizakiak lehoietara jaurtitzea eta milaka pertsonak hori ikusiz ongi pasatzea. Akaso, hori hain urrun eta arrotz zaigun gisan, izango zaie etorkizunean arraro egun- go animalien erabilpena jolaserako eta joko- etarako. Orain arte argi genuen, batetik, per- tsonak geundela, eta, bestetik, animaliak. Orain, ordea, banatzen gintuen muga mehe- agoa da. Geuk ere utzi genion animalia izate- ari, eta, egun, animalia batzuk ere lortu dute animalia ez izatea, zenbait etxe-animalia, kasu. Denbora ertainean, pertsonen edo ani- malien moduan, hausnartu beharrean izango gara.*



AIZPURU AUTOAK

EZAGUTU gure pintura eta karrozeria zerbitzuak

PROXIMITY
CUSTOMER

Lanak 24 ordutan egiten ditugu

Ekipo eta instalazio egokiak ditugu, fabrikatzaileen konponketa metodoak erabiltzeko eta kalitate handieneko zerbitzuak eskaintzeko.

- Jatorrizko ordezeko piezen muntaia
- Aseguru-etxeen gaineko aholkularitza
- Ordezko ibilgailuak, makura kasuetarako
- Aurrekontua, konpromisorik gabe

AIZPURU AUTOAK Zure konfiantza saritzen dugu

Onuraduna:

Balioztatze data:

Zigilua:

Telf. 943 812 359

Arretza 15, Landete auzoa, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa - telefono: aizpuru@proximitycustomer.com

*200 eurotik gorako txapa edo pintura konponketa aplikagarria, kupoiaren balioztatze datatik hilabetera arte.

Informazio agerikoa azalduz gero de 2103/AT234



PROXIMITY
CUSTOMER

Xabier
margoak

PARKET LAMINATUAK

MOKETAK (naturalak eta era guztietakoak)

SINTASOL (egur eta zeramika imitazioak)

KORTXO, KARTOI eta PAPERAK

PAPER MARGOTUAK (jubenilak, naturalak...)

ESKATU AURREKONTUA

**ERA GUZTIETAKO PINTAKETA
ETA DEKORAZIO LANAK
LIXAKETA ETA ZORU
BERNIZKETAK**



Pablo VI kalea, 20 behea - Tel. 943 157 325 - Mug. 630 264 548 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

xabiermargoak@hotmail.com - www.xabiermargoak.com



Nerabe izan ginen haiek

Faseek biltzen dute bizitza, ezin izan betiko haur, nerabe, gazte. Eta askok esango didazue norberak aukeratzen duela zer izan, nola izan. Eta, bai, halaxe da. Baina urteak badoaz, ez da aukeratzen dugun zer bait.

Parrandak leku eta une aproposa dira horrekin konturatzen. Plazatik gora dagoen edozein tabernara sartu, eta ikusten duzu aspaldi utzi zeniola berria izateari. Bizitza osoko lagunaren ahizpa txikia, hazten ikusi duzuna, mutilagunarekin dago barra ondoan; duela gutxi jaio zen etxepeko mutikoa, lagunekin; eta inoiz ikusi ez dituzun gazte eta nerabe horiek guztiak hantxe, dantzan. Horrenbeste jende bizi al da Azpeitian?

Hasten zara pentsatzen 2000. urtean jaio zirenek ere 17 urte dituztela dagoeneko, eta ez dela asko falta zure iloba txikia Fideon ikusteko. Hark ere 9 urte egingo ditu aurten, eta duela gutxi balitz bezala oroitzen duzu bere jaioteguna. Autoa hartu eta nola joan zineten, astearte gauez, Zumarragara. Horrek sortzen dizu sentimendu nahasi bat barruan.

Tira, itzuli tabernara. Kuadrillakoak galdezen dizu: "Zer pentsatuko ote dute mutil horiek gugatik?". Eta erantzuten diozu: "Ziur aski ez gintuzten ikusi ere egingo". Tabernetan jartzen dituzten abesti guzti-guztiak buruz dakizkitez. Orain arte nik ere denak nekizkien, baina atzera gelditzen ari naiz. Eta, alderantziz, Amaianean Hemendik at!-en abestiren bat jartzen dutenean, puntaren puntan ikusten dituzu zure lagunak, eta ohartzen zara gaztetxoek ez dutela ezagutu ere egiten abestia. Hor beste seinale bat.

Koloretako txupito horiek hartzeari ere utzi zenion, baina ez dakizu ziur noiz utzi zenion nerabe izateari. Herriko taberna guztietako zerbitzariak dakite zure izena, eta hori ere seinale bat izango da.

Emozioetatik bizitzen

Hamar urte inguru pasatu dira parrandan hasi ginenetik. Mundua jan behar genuela uste ge-



eneritz albizu

Atzean utzi dugu lehen aldiz gauzak egin genituen garai hura, edozerrek zirrara sortzen zigun garai hura

nuen, eta halaxe sentitzen genuen zapatu gauero. Eskola ondoko parkean afaltzen genuen, lurrean eserita; eta elkarri kontatzen genion nola maitemintzen ginen behin eta berriro. Oraindik ez zen Whatsapp-ik, baina Messenger-etik aukeratzen genituen larunbat gauetako arropak. Garai hartan pentsatzen nuen 25 urterekin bizitza bideratuta izango nuela, handitan zer izan nahi nuen jakingo nuela eta betirako izango zen norbait izango nuela ondoan. Eta hemen nago, Uztarriako artikulua idaztea tokatzen zaidan aldiro, nola biluztu ez dakidala.

Gaztetxoak ginen, barrutik eta kanpotik. Gu baino gazteagoak umeak ziren; eta gu baino zaharragoak, helduak, berdin zuen adinak. Benetan uste genuen baginela norbait, eta benetak gajo batzuk ginen. Gerora, bizitzak umiltasun ikasgaiak ematen dizkizu.

Joan zen. Jada ez gara lehen ginen pertsona berak, eta eskerrak neurri batean. Atzean utzi dugu lehen aldiz gauzak egin genituen garai hura (nahiz eta oraindik gauza asko ditugun lehen aldiz egiteko), edozerrek zirrara sortzen zigun garai hura. Eta horixe dut buruan etapez hitz egitean. Segitzen dugu emozioetatik bizitzen, baina dena da lasaiagoa, pausatuagoa.

Gaztea naiz ni, gazte sentitzen dut noiz eta non izan nahi dudan ume, gazte edo heldu. Baina, esaten hasita... Ez al zaizue zuei ere halakorik burutik pasatu igande arratsaldez?*






geurea da!



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Euskara erdigunean jarrita

Udalak euskara eta herritarrak erdigunean jarrita www.azpeitibizi.eus webgunea jarri du martxan. Proiektuaren xedea “herriaren izaera oinarri hartuta” turismoa erakartzea da.  Julene Frantzesena

Joan den maiatzean aurkeztu zuen Udalak euskara eta herritarrak erdigunean jarrita sortutako webgunea: www.azpeitibizi.eus. Webgunea ez ezik, eskuko telefonoetarako APPa ere sortu dute. Proiektuaren muina turismoa erakartzea bada ere, herriaren izaera hartu dute oinarri ataria osatzerakoan.


Sei atal ditu webguneak, eta ohiko informazioa modu “berezian” jaso dute bertan. Izan ere, Azpeitia zerk egiten duen bizi azaltzen dute 21 azpeitiarrek webgunean ikus daitezkeen *Zatoz onera, zatoz Azpeitira* bideo sortan. Azpeitiarren testigantzez gain, Azpeitia gogoangarria atala sortu dute, eta herriko tokiak, pertsonak eta gertakari historikoen gaineko informazioa bildu dute bertan. Hain zuzen ere, atal horretarako testuak Koldo Izagirrek eta Xabier

Gantzarainek egin dituzte. Argazkiak, berriz, Gaizka Otamendik egin ditu.

Bestalde, Azpeitian eta inguruetan egin daitezkeen ibilbideen gaineko informazioa jaso dute, eta baita ostatuen, jatetxeen eta tabernen gida ere. Oinarritzko zerbitzuen inguruko informazioa ere eskuragarri dago webgunean.

Euskal Herriko nahiz kanpoko bisitariak herrira erakarri nahi dituzte proiektuarekin, eta turismo eredu propioa sustatzea dute xede, Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak dioenez. Euskara da proiektuaren ardatzetako beste bat, eta bisitariak erakartzeko, euskarari balioa eman nahi izan diote. Horren erakusle da AzpeitiBizi proiektuaren euskarri guztietako eduki oro euskaraz jaso izana.*



Azketa ahots taldeko kideak AzpeitiBizi proiektuaren aurkezpenean.  Azpeitiko Udala



Iban Bergara.

ESANA DAGO

“Lanerako eta sormenerako aukera paregabea da Dinamo sorgintza gunea bezalako espazioak izatea”

“Txotxongiloak egiten hasteko izugarritzko bultzada izan zen Sorkuntza Beka”

IBAN BERGARA
txotxongilo egilea

“Niretzat Donostia 2016 izan bazen kultur hiriburua, Azpeitia 2017 da kultura herri; edo horrelako zerbait izan beharko zen”

ENEKO SAGARDOI
aktorea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salba Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut: 943 81 57 81

Euskal Herria, 31
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 40

Ekain Larritaldac
943 15 16 40

ALBAITARI KLINIKA

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS

Jose de Arrese, 17
Tel. 943-810954
AZPEITIA

Itzi Gado, 38
Tel. 943-850445
AZKOITIA



|||||txetxu urbieta|||

Permin

Udako santu festen ultra-traila hasi da (santu izatera iritsi nahi baduzu, gogoratu udan hiltzea komeni zaizula). Sanjuanetan hasi eta sanmielak arte, ultra berezi horretan, egunero duzu santuren bati eskainitako etapa dotorea. Proba horietan parte hartzeko izena eman beharrik ez dago, baina dortsala lortzea lan nekeza da. Bakoitzak bere santu eta txoko kuttunak ditu, baina egutegi gogor honetako Aitzkorri sanferminak direla zalantzarik ez. Festazale karneta berritzeko ezinbestekoa da urtean egun batean, behintzat, Iruñera joatea. Baratzuri sorta eta treskafeteras karameluak ekartzea desfasatuta gelditu den garai honetan, golfoen eta festazaleen nazioarteko bilgune nagusiena da gure erreinu zaharreko hiriburua. Ultra motza 12 ordukoa, ertaina 24koa eta gold karneta dutenek 36 ordutik gorakoa, ostiral iluntzean etxetik atera eta igande eguerditik aurrera itzultzen direnena. Azken horien artean artistenak dira igande arratsaldean ere arropak zuri-zuri eta zapi gorria bere lekuan dotore dutenak. Aurreneko kilometrotik tropelari tiraka aritu direnak nortzuk izan diren ere nabaria izaten da. Perminek bakoitza bere lekuan uzten du.

Ba ni neu behin bakarrik iritsi naiz sanferminetara. Munduko bi lagun onenekin joan ere... eta berriro joateko gogorik gabe itzuli nintzen. Hura ultra traila bada, nirea surfa edo golfa da. Gainera, hara joan gabe, Iñakik, gure Txapasek, egunero-egunero, bertan bazeunde bezala sentiaraziko zaitu. Eta zikindu gabe, ajerik gabe. Gora San Fermin. Eta ez ahaztu inoiz, ez beti-beti da ez.*

|||IKUSTEKO!|||||



▲ERLEKUMEEN TXOKO GOXO, HERRITAR HONEN AUTOA.

Bizileku bila dabilen erlekumeak herritar honen autoan hartu du babes. Udaberrian ohikoa da erlauntzetan oso indartsu dauden erleek kumeak botatzea. Izan ere, guztientzat nahikoa leku ez dagoenean, erregina berriak bere erle taldearekin txoko goxo baten bila irteten du. Oso egoera arriskutsua izanik, Azpeitiko Suhiltzaileen parkera jo zuen herritar honek, konponbide bila. 📞 Ainitze Agirrezabala. 📍 Herritar bat.*

███EKAINEN ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...████████████████████



San Juan sua

BIZITZAREN SOLSTIZIOA. Egunak luzatzen eta argitzen joaten dira berriro ere moztzen eta iluntzen hasteko. Horretarako pizten dugu San Juan sua, argitasun horri ahalik eta gehien heltzeko. Baina su horrek berak beroa eta argia dakarren arren, kea eta errautsa ere ekartzen ditu. Ezer ez baita betirako.



██████████Julen eizmendi██████████



Aupa Azpeitia!

UZTAILAK 1, PELOTAI EGUNE. Ez gaude makalak. Aurten ere Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketa-ko finalean izango da Azpeitia. Alboko herrikoak, meritu handiegirik egin gabe, Pilotari Eguna ospatzen ausartzen direnerako, guk ere, gutxienik, txanpaina freskatzen jarri beharko genuke.



Pintatu haserrea

PROFESIONAL ANONIMOAK. Nire iritzia, desadostasuna edo haserrea azaltzeko gogoan dudan bakoitzean txinoetan spraya erosi eta pintadak egiten hasiko banintz, paretarik gabe geldituko nintzateke he-

rrian. Askoz ere serioagoa eta profesionalagoa da diru publikoari esker bizi den herri aldizkari sinatu gabeko eskutitz bat bidaltzea. Eta are eta serioagoa eta profesionalagoa oraindik, aldizkariak gutun hori argitaratzea.*

INKESTA

merenderoetara egunpasa joateko ohiturarik bai?

 Ainitze Agirrezabala

MARIJOSE MENDIGAIN

53 urte



“Lizartzakoa naiz izatez, eta 14 urtera arte urtero joaten ginen

Arantzazura, Urbasara eta Aralarra. Auzokoekin egiten genituen egun-pasak, eta Kaxianoren anaia Manolak eskusoinua eramaten zuen, eta dantzan eta kantuan aritzen ginen. Egurrezko zabua jartzen genuen zintzilik zuhaitzean eta oroitzen oso politak ditut.”

HARITZ MUJICA

40 urte



“Gurasoekin ez, baina orain seme-alabekin joaten gara inoiz

Aittolara, eta Elorriagara, batez ere. Bueltatxo bat ematen dugu hango parajea, eta ondoren bertan bazkaltzen dugu”.

ITXASO ETXEZARRETA

44 urte



“Orain ez dugu ohiturarik, baina gaztetan askotan joaten nintzen

osaba-izebekin mendira eta merenderoetara: Urbasara, Arantzazura, Urbira, Elorriagara, Gaztelugatxera...”



Sokari helduta

Uztaila iritsi da eta berarekin batera herriko jaien usaina. Laster izango ditugu gurean barrakak, itxafe-roak, txoznak, pilota partidak eta nola ez, zezenak.

Gizakiak zezenekin duen harremana oso antzinatik dator; izan ere, zezenaren adorazioa ohiko elementua da antzinako zibilizazio askotan, kemenaren eta indarraren zeinu erabilia. Egipton, Mesopotamian eta Grezian ohikoak ziren zezenaren inguruko erritoak; batzuetan, jainkoei eskaintza egiteko; beste batzuetan, gizakiak naturarekin duen lehian aurkari.

Azpeitiari dagokionez, zezenekin egindako ikuskizunen lehenengo arrastoa 1518. urtean aurkitu zuten. Hala ere, Loiolako Iñigoren kanonizazioa une erabakigarria izan zen ekimen horien hedapenerako, agintariak ikuskizunok indartu baitzituzten Iñigo Deunaren loriaz. Harrezkero, zezenaletasuna zabalzen eta sustatzen joan da, eta gaur egun herriko festa guztietan hortxe daude zezenak kalerik kale ze-




chusemi vicente

zenezaleen gozamenerako. Ikuskizun horietara joatea besterik ez dago herrian zezenezale ugari dagoela konturatzeke, baina non daude animaliarik gabeko festak nahi dituztenak?

Gai hau denbora luze izan dut buruan mamurtzen, eta iritzi desberdineko pertsona askorekin hitz egin ostean, argi gelditu zait zezenen inguruko eztabaida gai korapilatsua dela. Aldekoek ohituraz harro hitz egiten dute; kontrakoek, aldiz, kexak xuxurlatzen dituzte etsipen aurpegia jarri.

Sokamuturrak duen indarra ukazina da, baina jai guztietan egin behar al da? Benetan nahi al dugu hiletaren ikuskizun diren zezenketak herrian izatea? Bat egiten badugu animaliarik gabeko zirkuekin, zergatik programatzen dira haurrentzako zezentxoak?

Benetako jai herrikoiak izatea nahi badugu, adostasun akordio batzuetara iritsi beharko genukeela-koan nago, herrian dauden iritzi guztiak kontuan hartuta. Agintarien esku gelditzen da hori lortzea.★

galdetzen hasita, Betharram eraikina berritzeko Lanak direla eta, non jarriko dituzte aurten tiobiboak?  Uztarria

Oporrak iritsi dira

Urte osoa zain eman ostean, oporrak iritsi dira: eguzkia, hondartza, atsedena eta janaria, janari asko. Oraingoan, janariaren inguruan hitz egin nahi dut, batik bat, leku berri eta exotiko batera doazenekin pentsatuta. Herrialde eta kultura berri bat ezagutzeak bertako sukaldaritzarekin harremanetan jartzen gaitu, eta hori abentura bat da.

Euskal Herriak janaria estimatzen irakatsi dit, baita bertako plateraz gozatzen ere. Hala ere, egia da une honetan nire plater maiteak diren horiek hasieran kulturizazio-proba izan zirela. Gogoan dut barraskiloak jan nituen lehen aldia. Banatzerakoan eskuzabalak izan ziren, eta ez dakit nire aurpegiak pentsatzen nuena islatzen ote zuen: “Puerto Ricoko etxe atarian nago eta jan egin behar dut”. Nire erre-akzioa ikusi nahi zuten, eta, horregatik, ahal nuen aurpegi onena jartzen saiatu nintzen: txotx bat eman zidaten, zizarea nola atera behar nuen azaldu, eta ahora. Ezusteko handia izan zen: atsegina iruditu



linette montalvo

zitzaidan, eta hurrengo gustura jan nuen, eta saltsa, ummmm, zer gozoa zegoen! Deseroso hasi zena, esperientzia atsegina bihurtu da orain.

Janariak kulturaz hitz egiten digu, leku bat uler-tzen laguntzen digu. Atentzioa ematen didana eta ikasten joan naizena da Euskal Herriaren janariak bere zaporea izatea estimatzen dela, osagaiekin esentzia galdu gabe. Aintzat hartzen dute produktu bakoitza, noiz den bakoitza jateko garaia, eta Michelin izarren abangoardiarekin ere ez dituzte aurreko belaunaldiengandik ikasitakoak ahaztu. Ezagutzen ditudan euskaldunekin paralelotasun bat egiten dut: munduari ateak zabaltzen dizkiete, beste kulturak ezagutzen gozatzen dute, besteengandik ikastea eta dastatzea gustatzen zaie, baina, aldi berean, euskal sukaldaritzan ez dute herriaren zaporea galdu nahi. Euskal Herriak Euskal Herriaren zaporea izateko egunero borrokatzen dute, izan behar duen bezala.★

HAU HOLAXEENK



Suhiltzaileak

Hurritz, nire keinuak berritzen ari zara. Zure eskuak nik egindako mugimenduak asmatu nahian dabilta: koadernoan idazten ikusten banauzu, boligrafoa hartu eta marrak zirriborrazten dituzu zoruan; intxaurrak aho-ratzen ditudanean, zuk bi ale hartu eta bata bestearekin joz intxaur txikitzen saiatzen zara. Irrigarria ere bada nire imintzioak zugan ispi-latuta ikustea.

Baina galdezka hasi orduko, ea ni neu noren zirkinak berrosatzen ari ote naizen, ea noren jokabideak ote dakartzadan nahi gabe zure eskuetara, larritu egin naiz.

Batzuetan munduak lur elkorra badirudi ere, tarteka aurkitzen da bere keinuak neurtzako nahiko nituzkeen jendea ere. Hor dago, esaterako, Ignacio Robles suhiltzailea, Bilboko portutik Saudi Arabiarako ziren armen karga bat zamatu gabe uzteagatik Bizkaiko Foru Aldundiak txostena zabaldu diona. Miragarria iruditu zait. Lana galtzeko beldurrik gabe, bere printzipioekin leial, aspaldi ikusi gabe nengoen inor bere lanbidea halako antzez betetzen: armak kaian kieto utzita, errotik itzali nahi izan du suhiltzaileak edozein balizko txinparta.

Ez dut uste oraindik halako iturri oparotik edateko gai direnik nire keinuak. Eskuak gero eta baldarrago dabilzkidan irudipena daukat, bihotzaren aginduei men egitera errenditu ezinda. Dena dela, etsi gabe saiatzea izango da kontua. Gimnasia egiten has naiteke, ea nire gorputz adarrak zaluago mugitzen has ten diren senaren esanetara.

Begira Hurritz, balkoiko loreak ureztatza noa mangera hartuta. Zatoz, eta saiatu jolas hau ere zure egiten. Agian, horrela lortuko dugu barruan dugunari adiago entzun eta basamortuan kolore pixka bat ernetzea.✘



|||||||||||||xabi borda|||

Erotikan Plax!

Harakina da ogibidez Eli Etxe-berria, eta hil honetan berari ego-kitu zaio galderak erantzutea.

Noiztik aritzen zara harakin lanetan?

1991. urtetik.

Zein da bizitzari ondo laguntzen dion saltsa?

Jendea, umorea izatea...

Zer moztuko zenuke labanarekin?

Matxismoa, oro har. Neure lanbidean ere bizi izan dinat.

Gizarte honek zer behar du-lontxa fin-finetan dastatzen joateko?

Errespetua lantzea. Aurreiritziek kalte handia egiten digute.

Maitasun kontuan, haragia parrilan ala pixkanaka?

Pixkana. Batzuetan, haragiak egosita behar din. Zankarroia ondo egosita eta piper gorri batzuk ondoan dituela... Halakorik ba ala dago ba!

Izter aldea ala lepo aldea?

Lepo aldea.

Ondo eginda edo gutxi egin-da behar din generoak?

|||ELI ETXEBERRIA ARZALLUS|||



|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:

- Sindikatu Zaharra, 2. solairu
- 688897920
- Hitzorduak: uztailaren 8an (10:00-13:00).
- Abuztuan ez da za zerbitzurik eskainiko.

Adina. 42 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Harakina.

Dudarik gabe, ondo eginda! Kar, kar, kar...

Aurrez prestatuta al gaude bikotean elkarbizitzeko?

Ez, ikasi egiten da. Hori ere lontxa finetan landu beharra dago.

Zein dun haragi samurrena?

Solomilloa, baina nik txuleta nahia-go!

Laneko gustuko momenturen bat?

Gustuko bezeroarekin berriketan egotea.

Zer egiten duzu plazer hutsagatik?

Gustuko musikarekin dantza!

Postre goxo bat?

Mazedonia.

Edabe inspiragarri bat?

Xanpaina.

Oilo ipurdia jartzen dizun abesti bat?

Oscar Bentonen *Bensonhurst Blues*.

Plan bete-bete bat?

Gizonarekin Donostiako Alde Zaharrean txikiteoa egin, Kontxan bainu bat hartu, zinemara joan eta etxera.

Usain bat?

Zapateiko larrosa usaina.

Bazter erotiko bat?

Zumaiako Itzurun hondartza.✘

◀ **HA**

Lanera
Saralegi
ezkerre
egiten
Amenaz
eta itza
desber
Bezero
egong
esterili
erabili
dira. Er
erabiltz
gainon
materia
Alabair
buruan
unetik
urrats

Azaleko artelanak

Naike Saralegi tatuatzailearen estudioan murgildu da Uztarria, eta tatuajea egitearen prozesua, hasi eta buka, iruditari bildu du.  A. Agirrezabala  Manu Hernandez

ASTEKO PREST.

ako mahaia prest du Naike gik, eta ohatilan eserita eta eko besoa luzatuta, tatuajea hasteko pronto dago Mikel abar. Tatuajearen perfilatua alak egiteko aparatu eta tinta rdinak eskura ditu Saralegik. oaren azalarekin kontaktuan o diren tresna guztiak, berriz, zatuta daude, eta behin eta zaborrontzira botatzen ra berean, tatuajeak egiteko zen diren tintak eta tzeke produktuak eta ala homologatuta daude. na, bezeroak tatuatzaileari n duen ideia adierazten dion tatuajea egiten den arte, zer egin behar dira?



▲ BEZEROAREKIN LEHEN KONTAKTUA.

Tatuajea egin nahi du Amenabarrek, eta buruan duen ideia azaldu dio Saralegiri. Behin asmoa adierazita, tatuatzaileak ideiak eta gomendioak ematen dizkio bezeroari, bien artean diseinua adosteko eta moldatzeko. 'Heriotzaren edertasuna' tatuatzea erabaki du Amenabarrek.

► EREDUA BESOAN.

Tatuatu nahi den diseinua argi dutenean, irudiaren kokapena eta tamaina erabakitzen da. Tatuatzailearen esanetan, "horretarako, tatuajearen marrazkia duen plantilla bezeroaren besoan nola geratuko den kalkulaten da. Detalle asko dituen tatuaje batek gutxieneko neurria behar du izan, detailerik ez galtzeko. Horren adibidea da 'Heriotzaren edertasuna'.





▲ IRUDIA KALKORA PASATZEN.

Behin diseinuaren kokapena eta neurria erabakita, egin beharreko hurrengo urratsa da irudia kalkora pasatzea. Saralegiren esanetan, "kontu handiz" egin beharreko lana da, marrazkiak aldaketarik ez izateko.

▼ KALKOA PAPEREAN.

Tatuatu nahi den irudia paperaren beste aldean geratzen da, ondoren bezeroaren azalera pasatzeko.



▲ KALKOA AZALERA.

Tatuatuko den gorputzeko ataleko azala garbitu eta irudia non kokatu markatu ondoren, 'Transfer' produktuarekin azalera pasatuko dute kalkoa.

▼ PERFILATUA BUKATUTA.

Perfilatuari dagokion lana bukatu dute. Saralegik adierazi duenez, "jada ez dugu kalkoa ezabatzeko arriskurik. Txantiloian oinarrituta, itzalak sartzen joango gara, argienetik ilunenetara".






▲ TATUATZEN HASTEKO PREST.

Dagoeneko ezkerreko besoan du irudia Amenabarrek, eta tatuatzeko aparatu desberdinak erabilia perfilatua egingo dio lehenbizi Saralegik, eta itzalak, ondoren.



▼ AZKEN EMAITZA.

Azken ukituak eman dizkio tatuatzaileak Amenabarri egin dion irudiari: "Tatuajeari argi pixka bat emateko detaile txuriak sartuko dizkiogu". Lau orduko lanaren ondoren, bukatu dute tatuajea.



buruak; are gehiago, bata bestearen ondorioa da.

Zergatik postalak eta gutunak?

Postalak, Zarautz postaletako herria delako. Jendeak, zarautzar batzuk barne, ez daki 36ko gerrak herrian zer ondorio utzi zituen. 60 urtetik beherako zarautzar askok

esan dit "hemen ez zen ezer gertatu". Ez zela ezer gertatu? Hainbat zarautzar desagertuta dago oraindik. Kontua da postala gailendu dela. Ezer ez dela gertatu dirudien postalarekin gelditu gara, udatiarrak eta bakea ageri diren postalarekin. Baina hori gezurra da. Bestalde, lehen liburua

egitean, joko eman zidaten postalak; izan ere, sasoi hartan, zentsura tarteko, postalak bidaltzea gomendatzen zuten agintariek, ez zirelako ixten. Eta, gainerakoan, gutun-azal irekita, zentsuraren galbahea pasatzeko. Lehen libururako pertsonaia bat asmatu nuen, Maritxo, eta hark herritik kanpo zegoen pertsona bati bidalitako postalak erantsi nituen. Bigarren libururako gutunak aukeratu nituen, batez ere, behin zarautzar baten alabarengana Baionara joan eta haren amak bere garaian *El Diario Vasco* rako idatzi zuen gutun bat eman zidalako. Orduan erabaki nuen postaletatik gutunetara salto egitea.

Matxinbentarra izanik, zer dela eta egin dituzu Zarautzen oinarritutako lanak?

Ez, ez, Donostiako Ospitalean jaio nintzen -kar, kar, kar-. Bost senideetan etxean jaio ez zen bakarra naiz, horregatik diot hori. Amak esan izan dit: "Matxinbentarra? Han jaio ez zen bakarra ez haiz, ba!". Gaiari eutsiz, Zarautzi buruzko lana egin dut, bizitzako urte gehienak han daramatzadalako. Kazetaritza ikasten hasi nintzenean, ahizpak-eta Zarautzera joan ziren bizitzera, eta ni ere hara. Lagunak egin nituen bertan, eta aukera izan nuen *Eginerako* Zarautzko kronika egiten hasteko. Gero, *Argian* hasi nintzen lanean, eta, ondoren, *Egunkarian*. Eta hura itxi zutenean, *Berrian*. Ikasketak bigarren mailan utzi nituen, eta gaur arte. 1994tik Zarautzen bizi naiz.

“Ezer ez dela gertatu dirudien postalarekin gelditu gara”

“Osagarriak dira bi liburuak; bata bestearen ondorioa da

Orain arte egiteke zegoen lan bat gauzatu duzu. Zer eragin izan du horrek?

Lehen liburua ondo hartu zuten herritarrek, eta hau bereziki ondo, definituagoa delako. Biktimak ez ezik, gaizkileen izenak ere badaude, eta hori izan da tabu bat haustea; herritar batzuek izugarri eskertu dute. Askotan aipatzen da gaizkileen ondorengoei min egingo diela datu horiek plazaratzeak, baina ni ez nago ziur beti mina eragiten ote duen. Agian, lasaitu ere egingo dira. Jendea etorri zait liburuak etxeko isiltasun edo begirada batzuk ulertzen lagundu diola esatera; izan ere, horiei ez zieten ezer kontatu etxean. Edonork izan ditzake familian bi aldeetako senideak... Ni biktimen pozaren alde jarri naiz, ez bestearen erreparoren alde. Eta, oraindik ere, erreparoa baldin badugu, landu egin beharko dugu.

Landu, zer?

Duela ia mende bateko historia ari gara hizketan, eta bada garaia, gutxienez, orduan gertatutakoa jasota gera dadin nonbaiten. Gaizkileen izenak ateratzea ez da mendekua. Hori egin dut, batetik, jasota gera dadin, eta, bestetik, ezinbestekoa delako pertsona horietako gehienak ondoren botereguneetan ezarri zirela jakitea. Demagun, beste norbait hasten dela frankismoa aztertzen. Ba lan hori egiten duenak botereguneetan topatuko duen jende hori nondik datorren jakitea oso datu inportantea da. Horrela ulertu egingo ditu gauzak, bai denborari eta bai boterearen banaketari dagokionez. Eta ez naiz ari botere politikoz soilik, botere ekonomikoa, soziala... Ederki banatu zituzten horiek guztiak. Beraz, aurreragoko sasoiei buruzko lanak egiteko, beharrezkoa da halako lanak ondo eginda izatea.

Zerk sortu dizu 36ko gerra-errekiko halako interesa?

Gure etxean ez zen askorik hitz egiten horretaz; hori ere ikusi beharko dugu zergatik den horrela. Kazetari lanetan hastean ohartu

nintzen, jende edadetuarengana elkarrizketak egitera joaten nintzenean, denek gerra aipatzen zutelarik; beti ateratzen zen gerra hizketaldian. Normala da, beren bizitza markatu zuelako, baina nik ez nuen horren kontzientziarik. Azkenerrako, neu hasi nintzen gudaz galdezka. Eta konturatu nintzen justiziazkoa izan zela. Orain asko hitz egiten dugu biktimen justiziarako eskubideaz eta krimenak argitzeko eskubideaz, baina badirudi batzuenak bakarrik direla eskubide horiek. Izan ere, orain dela 80 urteko biktimekin segitzen dugu, hortxe, eta ezer esateko errepararekin. Nik sinesten dut egia osoan, justizian eta erreparazioan, justiziazkoa iruditzen zaidalako. Eta, bestalde, gugatik eta gure ondorengoengatik ere egin dut lan hau. 36ko haiek hazi gaituzte gu, nahiz eta askotan pentsatzen dugun gerrak gurekin ez duela zerikusirik. Frankistek hezi zituzten pertsonak hezi gaituzte gu; beraz, ezin da esan gurekin zerikusirik ez duenik, jabetzen ez bagara ere, eragina zuzena delako. Gu hezi gaituzte frankismoak emazte eta etxekoandre perfektu izatera behartu zituen emakumeek, nahiz eta frankismoaren aurka egon ziren gero. Baina txiki-txikitatik sartutako hori guztia ateratzeko, orain arte egin ez dugun izugarritzko lan-keta egin behar da. Beraz, ez da gure aurrekoengatik bakarrik garrantzitsua halako lanak egitea, denongatik baizik. Denontzat da mesedegarria, nondik gatozen jakiteko eta ordutik hona gertatu diren gauza asko ulertzeko.

Eta zeuri, zer ekarpen egin dizu lan hau egin izanak?

Handia, gauza asko ulertzeko balio izan baitit. Balio izan dit jendea eta nire burua ulertzeko. Nire etxean ez zen asko hitz egiten politikaz, eta jakin dut zergatik zen: alde bat oso-oso frankista zen. Oso-oso horri pixelak bilatu behar dizkiot orain. Hau da, detailatu egin nahi dut, balitekeelako gauza izugarriak egotea. Eta horiek jakin nahi ditut, niri ere lagunduko dida-



Amagoia Gurrutxaga, Amuko zubia atzean duela. ||| Julene Frantzesena

lako isiltasunak ulertzen. Eta, bestalde, iruditzen zaidalako elkarbanatzeko gauza bat dela, denok uler dezagun gauden zera hau. Bestalde, pertsona zoragarriak ezagutu ditut bide honetan. Irakaspen oso handia eman didate, izugarriak pasatuta ere, bizitzen segitzeko gogoia eta bizipoza erakutsi didate. Biktimen ondorengoei asko aipatzen dute bizikidetzaz, eta harritu egiten dira. Batek hala kontatu zidan: "Ni joaten nintzen *caja de ahorros*era, eta han zegoen lanean gure osabaren hiltzaila. Eta hantxe egoten ginen. Gero hil zen, eta trantsizioaren eta bakearen izenean, isilik segitu genuen. Ez dugu nahi mendekurik,

baina, gutxienez, onartu beharko da ba zer gertatu zen". Bestalde, egin zituzten desjabetzeekin-eta, oso litekeena da jendeak beren jabetza batzuk nondik datozen ez jakitea, etxean ez zaielako esan. Zer pentsatu ikaragarria ematen du gaiak; niri eman dit, ikuspegia aldatu dit, guztiz. Gauzak beste modu batean ikusten, begiratzen, irakatsi dit. Egia osoa, justizia eta erreparazioa bai, baina denontzat. Orain dela 40 urte trantsizioaren izenean isilik egon zirenei, 80 urte dituztenei, galdetu behar zaie nola demontre pasatu ziren pasatu zirenak. Ze, ja, oso berandu gabiltza. Zergatik onartu zen hori duela 40 urte? Izugarritzko akatsa izan

zen. Ze gero etorri zen diktadura kriminalei inork konturik ez eskatzea, eta horiek bai jarri zirela botere guneetan-eta. Eta diktadura garaiko asko, oraindik hor da biltza, demokrazian polizia buru eta abar izatera pasatu zirelako. Nola liteke? Oraindik ez dugu horri buruz hitz egin behar?

Orain, nola irudikatzen duzu Zarauzko postala?

Ez da postal bat. Hasteko, 36an Zarautz ez zen herri turistikoa, soilik bisitari dirudun batzuk joaten ziren hara uda pasatzera. Baina, urtean zehar, baseritarrak eta fabriketako langileak bizi ziren han. Orduko errealtatearen irudi bat dugu, erabat distortsionatua. Ez



zait postala geratzen, konplexuz betetako jauntxokeriaren irudi bat baizik. Pentsatzen zen kanpotar dirudunak konponduko zituela herriko kontuak, baina hori ez da horrela; konpondu ez, eskupeko batzuk emango zituen berak jarrai zezan agintean.

Halako beste lanik egingo zenuke?

Ez da posible. Duela hamabost urte hasi nintzen elkarrizketak egiten, eta protagonistak hilda daude jada. Arazoa hori da, berandu dela. Oso gutxi geratzen dira bizirik. Zarauzkoarekin hasi nintzen, eta horrela etorri da. Hori bai, orain egin nahi nuke 45etik frankismo garaia bukatu arteko lana.

Eta lan hori edozein herritan egin daiteke, sasoi hartako jendea oraindik bizirik dagoelako. Batzuk bai, eta berandu gabiltza orain ere, baina bada oraindik jendea. Askotan esaten dugu: "Ai, denak hil dira". Ba pentsatu beharko dugu orain norekin hitz egin dezakegun, eta haiengana jo. Elkarrizketatu denak, eta aurrerago ikusiko dugu zer egiten dugun elkarrizketa horiekin. Hori ja egin behar da, bestela hemendik hamabost urtera esango dugu: "Ai, denak hil dira". Lo gaudela da arazoa. Bada go lanik egiteko, eta uste dut egingo direla, bada go borondatea.

Oroiteria webgunean ere aritu zara lanean.

Aspaldiko asmoa zen, eta iaz hartu nuen eszedentzia hori prestatzeko. Webgune orokorra da, eta, egia esan, harrিতa nago hori egiten ere zer berandu gabiltzan. Lan hori *Berriak* egin du, baina orain arte ez zegoen webgune tematikorik Euskal Herriaren ikuspegitik gerra jasotzen zuenik. Webgunea sortu dugu, liburu bat izan gabe, pantailatik informazioa jaso ahal izateko. Gizarte osoari eragin zion gauza bat bezala jaso dugu, hala izan zelako, eta erakundeen eta eragileen erantzun oso ona jaso genuen lana egiterakoan. Izugarri ikasi dut, eta gustura nago Oroiteriak ematen duelako aukera historiar beste modu batean sar-tzeko.

Memoriaz hitz egiten den honetan, zer da memoria? Zenbat memoria daude?

Ni ez naiz horretan aditua, ez dakit memoria zer den zehazki. Dakidana da ez dagoela memoria absoluturik. Beraz, bai, argi dago, memoria asko daudela. Garrantzitsua da inor ez uztea kanpoan. 36ko gerra irabazi zutenak, gero, 40 urtez, aritu ziren gogorarazten beren martiriak, eta bestaldekoiei hileta elizkizunak egitea debekatzen zieten bitartean, beraietako bat hiltzen zenean, bestaldeko horien umeak eskolatik derrigortuta eramanen zituzten *Cara al sol* kantatzera eta haien alde otoitz egitera.

“EZ dago egia absoluturik, bakoitzak bere egia dauka”

“EZIN da betatu historia denok jakitea, ez dago beto eskubiderik”

Pentsa nolakoa zen egoera. Memoria isilean eta erdi lotsatuta gorde behar izan zuten haiena, gutxienez, jaso egin behar da. Besteek jaso zuten; pasatu zituzten 40 urte hori jasotzen. Franco hil zenean, hemen ezer gutxi egin zen, eta, horri esker etorri da gaur egun errebisionismoa, gertatutakoa ukatzeko bidea. Eta ez da ahaztu behar herri ekimenez egin den lana, eta inoiz ez dena behar adina eskertuko. Orain erakundeak sartu dira, eta nahiago dut orain sartzea inoiz ez sartzea baino, baina 40 urte hauetan ez dute ezer egin, eta hor paper garrantzitsua izan dute herri ekimeneko elkar-teek-eta. Haiei esker dakigu gaur egun hainbat gauza. Hori guztia esanda, memoria puzzle bat da, eta puzzle horretan bakoitzak ikusiko du zein txoko gustatzen zaion gehien. Baina, gutxienez, puzzle osoa egon dadila, eta onar dezagun osotasunean.

Gai tabua izan da memoria-rena urte luzez...

Orain ere nahikoa tabu da. Orain ez da tabu gerrak biktimak utzi zituela esatea, baina ezin da esan zein ziren gaizkileak. Eta ez dut ulertzen. Beno, bai, ulertzen dut, herrietan halakoa gaizkilea izan zela esatea... Baina zer? Hala izan bazen, hala izan zen. Begiratu zertara iritsi garen: orain etxeko atarira atera eta ikusiko bagenu pertsona bat beste bat jipoitzen edo hiltzen, derrigortuta gaude legez hori salatzeraz; eta ezagutzen badugu, nor izan den esatera. Aldiz, badakigu orain dela 80 urtekoa

inora ez dela joango denak hilda daudelako, eta, hala ere, ez dugu salatzen, haien ondorengoei, agian, kalte egin diezaiekegulako edo ez zaielako gustatuko. Bada nahikoa heldutasun duen jendea ere; Zarautzen frogatu dut hori. Denon historiaz ari gara, ezin da betatu historia denok jakitea, ez dago beto eskubiderik. Arreta batzuek har dezaketen minean jarri beharrean, zergatik ez dugu jartzen beste askoren lasaitasunean?

Askotan aipatzen da egia, baina inoiz jakingo al dugu?

Geroz eta zailagoa da. Ez dago egia absoluturik, bakoitzak bere egia dauka. Baina ez bada go borondaterik –politikaz ari naiz– milaka pertsonaren egia jasotzeko, eta milaka eta milaka lagun horiekin gertatutakoa ez biltzeko erabakia hartu zenez, orain berandu gabiltza. Izan ere, egiaren zati bat galdu da jada betirako, orduko pertsona asko hil egin baitira. Eta jasota dagoen zatiaren berri emateko erreparoa bada go, argitu beharko dugu zer den egia. Orain, sasoi batzuetako egia galduta, saiatu beharko dugu geroagokoa ez galtzen, eta horretarako lanean hasi behar dugu. Baina hori ere erabaki politikoa da.

Pausoak eman dira iragane-ko eta azken hamarkadetako zauriak ixteko. Historia ez da iragana bakarrik.

Lehen gozuetatik etorri behar dugu pixkanaka gaur egunekoetara. Ez du balio oraingo gauzetan arreta jartzeak eta aurretik ezer gertatu ez balitz bezala jokatzek. Ez du balio tranpa egiteak, eta hala ari gara egiten. Lehen bizikidetzaren izenean, haserrik gabeko askatasuna aldarrikatzen zen, eta horrek ekarri du orduan gertatu zena ukatzea iristea. Gainera, boterean segitzen dute ordukoak, eta ari zaigu etortzen amnesia bat... Inork ez dakigu zer gertatu zen. Hori da nahi duguna? Gauzak ondo egin behar dira; oraingoa eta ordukoa jaso behar da.

Kazetaritza lana ere izan da liburua. Berriako kazetaria eta Administrazio Kontseiluko kide zara. Ikuspuntu horretatik, nola ikusten dituzu euskarazko hedabideak?

Euskalgintzarekin oso lotuta dago; beraz, erantzun beharreko galdera da nola dagoen euskalgintza. Begiratu behar diogu zenbat aurreratu dugun alfabetatzean? Hau da, *Egunkaria* sortu zenetik gaur egunera irakurtzeko ohiturak zenbat aldatu diren, zer joera izan duten datuek... Kalitate aldetik, ondo ikusten ditut. Gauza askotan hobetu dugu, baina geroz eta prekarioago gaude. Diru laguntzetan murrizketak jasan ditugu, eta horrek lan egiteko ahaletan dakartzkigu murrizketak. Kazetaritza, orokorrean, oso lan prekarizatua da, eta jendeak uste du zoragarria dela. Gainerakoan, guk ez dugu inongo inbidairik erdarazko inguruko beste hedabide batzuekin konparatuz gero. Euskarazko hedabideetan uste dut profesional oso onak daudela, baina ez dut ikusten apustu bereziki indartsurik euskarazko prentsa bultzatzeko.

Matxinbentarra izatez, nola oroitzen duzu haurtzaroa?

Garai ederrak izan ziren, Azpeitira ez nuen joan nahi izaten. Sei bat urtera arte bizi izan nintzen Matxinbentan; egia esan, primeran bizi



Amagoia Gurrutxaga -behean, ezkerretik hirugarrena-, Urrestillako eskolako gelakideekin. ■ Amagoia Gurrutxaga

nintzen han. Eskolara Azpeitira joaten hasi nintzen, eta ez nekien gaztelaniaz. Ia ahaztu egin zitzaidan euskaraz hitz egiten, kontzientea naiz horretaz. Egun batean amari hitz bat esan nahi nion euskaraz, eta gaztelaniaz ateratzen zitzaidan. Lehen aldiz orduan izan nuen euskara galtzen ari nintzen kontzientzia, eta 9-10 urte nituen. Hitz hura euskaraz ezin esanda sentitu nintzenez, sartu zitzaidan halako zera bat... Haserretu egin nintzen. Ordurako Azpeitira joa-

nak ginen bizitzera, ez nuen nahi baina... Mojetan ikasi nuen, eta hura ez zen nirea. Halere, eskolan gustura ibiltzen nintzen, eta baita eskola kirolean saskibaloian ere. Xubi izan genuen entrenatzaile, gozatu egiten genuen. Igerian ere ibili nintzen bolada batean... Denean txarra, baina jarduten genuen. Gero, Bilbon hasi nintzen unibertsitatean, eta 19 urterekin edo alde egin nuen Azpetitik. Librazio moduko zerbait izan zen, egia esan.

Ordutik, zer harreman duzu Azpeitiarekin?

Gurasoengana joaten naiz astean behin, horretarako ohitura daukat. Landetan bizi dira, ordea, eta ez naiz herrigunera asko gerturaten. Baina joan izan naiz Sanagustin kulturgunera kontzerturen batera, baina hori ere gutxitan egin dut. Bi umeren ama naiz, eta ez dut denerako denborarik. 24 ordu ditu nire egunak, eta liburua, lana eta bi ume, 22:00etarako leher eginda egoten naiz.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Abendaño poligonos, 2
Tel. 943 135 016
Zarautz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 143 443
Zumaiak

San Juan, 15 edif. AUR
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Gosaga Kalea, 15
Tel. 943 148 241
Zestoa

Hitza ez lapurtu, publikoa da

Karmelo Etxegaraiko irakasleen gehiengoak egin zuela bat egun hartako greba deialdiarekin kontatu zuen *Uztarrria.eusek*. Sindikatuek hezkuntza publikoaren kalitatea hobetzeko neurriak har zitzala eskatzen zioten gobernuari. Ez dakit nik greba sorta honek, burutuak eta iragarriak, kalitatea hobetu ordez erasan ez ote duen egingo publikotasunaren irudia. Langile greba baino greba politikoa dirudi. Zilegitasun zipitzik ez diet kentzen, baina zalantzak izateak ez dit, besterik gabe, arrazoirik ematen.

Nola da posible "ikastola" izanik hezkuntza publikoko greban parte hartzea? Galdezen zuen, asalduraz, erabiltzailea goitizen zerabilen batek. Euskara aski ez dakielako ala asmo bihurriago batek eragiten ziolako egin zuen galdera hori? Ikastolen Elkarteko ez den orori ikastalotasuna ukatu eta kendu nahi dizkionaren setakeria antzeman nion. Zaila egiten zait, honetan, arrazoirik ez dudarenena aitortzea.

Zaila egiten zait kosta egiten zaidalako inori inolako izaeraren eskubidea ukatzea. Jende asko dago ikastetxe publiko bati, haurrik gehiena euskaldundu duen hezkuntza sarekoari, ikastolatasuna (eta bide batez euskaltasuna) ukatzen diona, asko dagoen bezalaxe bere gogokide ez dituen gainerako herritarrei ukatzen diena. Izan behar da! Izan behar da behar dena inori eskubidez dago-kion eskubidea ukatzeko. Kontra izan ala alde izan eskubiderik ezin zaio ukatu duenari.

Ikastolaren adiera

Euskaltzaindiaren hiztegia hartzen badugu, ez daukagu hoberik oraingoz, ikastola sarre-rak honela dio: **ikastola** iz. *Euskaraz irakasten den lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxea*. Horren arabera, garbi dago Karmelo Etxegarai ikastolako eta ikastetxe publikoak diren beste ikastola askotako langileak




||||||||||| **ramon etxezarreta** |||

||| Izan behar da! Izan behar da behar dena inori eskubidez dagozkion eskubideak ukatzeko

ez zirela hezkuntza sarek nahastu beren greban; eta *Uztarrria.eus* ere koherentea izan zela notizia erredaktatzerakoan, titularrean ikastola hitzari iskintxo egin bazion ere.

Oraindik, interesatua edo haserretu gabe edo haserreari eutsiz, irakurtzen jarraitzen duenarentzat, Euskaltzaindiak adibide hauekin jarraitzen du: *Haurrak ikastolara bidaltzen ditu. Herri ikastola: ikastola publikoa. Ikastola pribatuak. Udal ikastola.*

Ikusita nago eta sarri entzunda, Azpeitia alde honetan, haurra eskola publikora eramaten zuen guraso bati ukatzen, bere haurra ez zuela ikastolara eramaten Karmelora eramaten zuela. Hori eta antzekoak haurren, gurasoen eta herritar guztien eskubideen aitortpenaren ukazio ez badira...! Guztiok aitortzen eta ordaintzen diegun eskubide osoz publiko ez izateko aukera dutenek, eta ez beste inork, ez dute hitzak, euskarazkoak barne, lapurtzeko eskubiderik. Hitzak behintzat publikoak dira! Guztionak beraz.*



Ustekabeko habia

Ez gehiago eta ez gutxiago: bost seme-alaba dituzte Nagore Aramendik eta Antton Artetxek. Haien etxean ez dago inoiz aspertzeko betarik. 📌👁️ Ihintza Elustondo

Betidanik familia ugaria izan nahi zuten Antton Artetxek (Azpeitia, 1975) eta Nagore Aramendik (Azpeitia, 1980). Julen izan zen munduratzan aurrena, eta Jokin bigarrena. Eta zaharrenak 4 urte egiterako, beste ume bat izango zuela jakin zuen bikoteak. Aramendi jarioak izaten hasi zen, ordea, eta Zumarragara joan ziren haur galdu zutela pentsatuz. Zer gertatzen zen ikusteko, ekografia egin behar zioten Aramendiri, eta senarrari ez zioten gelara sartzen utzi. "Halako batean entzun nuen kanpotik: 'Biii?'. Eta geroxeago: 'Hiruu?'. Kamera ezkua izango zela pentsatu nuen". Zumarragara joan zirena baino isiliago egin zuten etxera bueltako bidea. "Hau ere guri tokatu behar!", diote biek barrez.

Hiru haur sabel bakar batean izanda, arrisku handiko haurdunaldia zela esan zieten medikuek, eta bai Zumarragan eta bai Donostia haurren bat kentzea nahi ote zuten galdetu zieten. "Galdetu genien bat hori kenduta ea arriskuak gutxituko al ziren, baina esan ziguten ezetz, aurrez bi ume genituenez, arrazoi ekonomikoengatik ari zirela". Bikoteak argi zuen hiru umeekin aurrera egingo zuela. Arazorik gabe joan zen haurdunaldia, eta 2011ko otsailaren 1ean jaio ziren Ane, Irati eta Leire. Pisu gutxirekin, baina osasuntsu.

Hiru jaioberri etxean, gurasoek nahikoa lan zuten ordu batzuez lo egiteko. Negar asko



Artetxe-Aramendi familia bi txakurrekin, Aste Santuan, Sistiaga Errekan. || Nagore Aramendi

egiten zuten txikiek, "batek ez bazen, besteak". Orduan, erreleboak egiten hasi ziren gurasoak. Egongelan jartzen zituzten umeak, eta, lehenik, Aramendi joaten zen logelara lotara, 02:00ak arte, eta, gero, Artetxe. Horrela, eguna joan eta eguna etorri. "Zapatua eta igandea eta... Han ez zegoen jaiegunik", dio Artetxek. "Nik pentsatzen nuen: 'Hau al zen hain ederra?'" erantsi du Aramendik.

Bost ume, zenbat pixoihal?

Auskalo zenbat pixoihal aldatu ote dituzten urteotan: "300-eta kontatzen genituen etxean. %70eko deskontuak zeudenean, bi orga betetzen genituen: bat pixoihalekin, eta, bestea, janariarekin". Egunero 24 pixoihal aldatzen zituztela kalkulatu dute, ume bakoitzarekin, zortzi. Biberoiak ere, ez dago jakiterik zenbat prestatu ote dituzten.

Egun, koxkortu dira umeak. 10 urte ditu Ju-



lenek, 9 Jokinek, eta 6 Anek, Iratik eta Leirek. Neskak jaio zirenean, eszedentzia hartu zuen Aramendik, eta langabezia gelditu zen Artetxe. Dena den, orain biek egiten dute lana; Artetxek goizez eta arratsaldez txandakatuz; Aramendik, berriz, beti arratsaldez, lanaldi erdian. Hori bai, egunero antzeko ordutegia jarraitzen du familiak. 07:00etan jaikitzen dira guraso biak, eta bazkaria prestatzen dute. Ondoren, haurrek gosaltzen dute, eta eskolara eramaten dituzte. Gero, biak etxean badira, kirola egiteko aprobetxatzen dute, eta denek etxean bazkaltzen dute eguerdian. 14:30ean lanera sartzen da Aramendi, eta haren ama etortzen da haurrak eskolara eramateko. 18:30ean ateratzen da Aramendi berriz lanetik.

Bi mutilak eskolaz kanpoko hainbat ekintzatan ere ibiltzen dira. "Batek, 17:15ean ingelesa izaten du, eta, besteak, 18:15ean; bat eraman, bestea jaso; asteartean, igerilekua, eta, asteazkenean berriz ingelesa; gero, pilota partidak; takoak jarri, kendu; inglesa... Parregarri ibiltzen gara", dio barrez Artetxek. "Eskerrak neskak oraindik ez diren eskolaz kanpoko ekintzetan ibiltzen", erantsi du Aramendik.

Eguneroko martxa posible izan dadin, gurasoen laguntza ezinbestekoa duela dio bikoteak. "Lana ere egin egin behar dugu-eta. Dirua emango balidate, ibiliko nintzateke umeekin aurrera eta atzera, baina...", dio Aramendik. Bikotea kexatu izan da diru laguntzarik jasotzen ez duelako. Aurten bekak eman dizkiete, baina aurreko urteetan ez zuten ezer jaso. "Harritu egiten zara, eta esaten duzu: 'Guri ez badizkigute ematen, nori emango dizkiote? Baina beno, laguntzen zain ez daukagu egoterik. Hemen guk egin behar dugu lan, argi dugu hori'".

Pilotarako afizioa

Egun osoa batera eta bestera ematen duten arren, Aramendik eta Artetxek ateratzen dute denbora beraientzat ere. "Batuetan, paseatzera joaten gara; beste batuetan, korrika egitera...". Orain, gainera, pilotan hasi da Aramendi, eta familia guztia haren partiden arabera ibiltzen da hara eta hona. Gabonetan Emakume Master Cup txapelketara apuntatu zen, eta ordutik gelditu gabe ari da. "Sekulako partida pila ari zaizkigu ateratzen. Ez sinestekoa da. Santo Domingon [Errioxa, Espainia], Getarian, Añorgan, Ean, Zumaian... jokatu dugu". "Aimar Olaizolaren pare dago", bota du Artetxek.

Hura ere pilotan aritutakoa da, eta Jokin

semea ere hasi da kirol horretan murgiltzen. Egun-pasa joaten direnean ere, pilota eramaten dute, "badaezpada ere". Pilotaleku bat bilatu, eta Artetxe seme zaharrenarekin eta Aramendi gaztearekin, laurak elkarren kontra aritzen dira, neskak soka saltoan-edo ari diren bitartean. Aramendik aitortu du normalean Artetxek eta Julenek irabazten dutela. "Baina ez gara barkatzeko egoten, e!", erantsi du.

"Ez da zoroetxea"

Edonork pentsa dezake, zazpi lagun bizita, egundoko iskanbila izan behar dutela etxean. Baina gurasoek kontrakoa diote. "Umeak noiz edo noiz haserretzen dira, baina gu, normalean,, bakean egoten gara etxean", azaldu du Aramendik. "Sekula ez da izan zoroetxe bat gure etxea", dio Artetxek. Alderantziz; zenbat eta ume gehiago, hobe dela uste du Aramendik. "Badirudi txarra izan behar duela bost ume izatea, baina guztiz kontrakoa da, elkarren artean asko entretenitzen baitira. Bat hori beti aspertuta egoten da, eta menpekotasun gehiago eragiten du", adierazi du. "Hauek elkarren artean kontuak esaten hasten dira, eta ez dute inoren beharrik izaten" azaldu du Artetxek.

Eta, zein da ba sekretua? Berehala erantzun dute biek: "Pazientzia". Artetxeren esanetan, "lasai hartzea" ezinbestekoa da: "Zeu urduri bazaude, umeek ere antzeman egiten dute". Beste kontu bat ere nabarmendu du gizonak: "Garrantzitsua da beraiekin hitz egitea eta gauzak adostea. Oihuka hasten bazara, negarrez hasten dira, eta ordu erdira hor jarraitzen du iskanbilak. Nik hori behintzat ikasi dut, beraiekin hitz eginda konpontzen direla gauzak". Aramendik dio errieta gehiegi egin gabe moldatzen direla: "Sekula ez gara izan zigortzekoak-eta, keba". "Errieta eginda aurpegira barre egiten digute", dio barreari ezin eutsita Artetxek.

Guztiaren gaineratik, umorea. Horixe du bidelagun handiena bikoteak. Barrez diote "hasierako susto hura" pasatu zaiela, eta ja "errekuperatzen" ari direla. "Umeak hazte hau guretzat ere ederra ari da izaten, e, Antton?". "Orain beste garai bat da, ze hasiera hura...", senarraren erantzuna. Emazteak dio orain baietz, "disfrutatzen" ari direla.

Biberoiak, pixoihalak eta nahi baino lo guxtiago egindako gauak aurrena. Jolasak, negarrak eta barreak hurrena. Bikotearen arabera, "bizitzekoa" izaten ari da dena. Poliki-poliki, bidea eginez, zentzua hartzen ari da ustekabean sortu zena. ✘

Kezka baten iturrira bidaiia

Herriko eragile eta sortzaile hainbatek 'Hiru lore beltz' emanaldia eskainiko dute uztailearen 28an, Sanagustinen. 1973an Lapurdin hil ziren hiru migratzailearen istorioa da ardatza. 🍷 Julene Frantzesena

Duela 44 urte hiru gizon hil ziren Ezpeletako (Lapurdi) mendi elurtuetan hotzez, gosez nahiz bakardadez. Migratzaileak ziren, Senegalekoak, eta trafikatzaileek, Portugaldik Euskal Herrira iristean, abandonatu egin zituzten. Gertakizun hori du abiapuntu eta ardatz *Hiru lore beltz* ikuskizunak. Uztailearen 28an taularatuko dute emanaldia hainbat herri-tarrek, 22:00etan hasita, Sanagustin kulturgunean.

Dinamoak, Elkar-ekinek eta herriko hainbat sortzaileek osatu dute hitzak, hotsak eta irudiak uztartuko dituen emanaldia. "Egun-go Azpeitiko sormenaren eta sentiberatasunaren erakusgarri eta lagin izan nahiko luke", azaldu dute antolatzaileek.

Xalbadorren bertsoa

Gertakari lazgarri haren aurrean

||| DATUAK |||||

||| **Zer.** 'Hiru lore beltz' ikuskizuna. ||| **Eguna.** Uztaileak 28 (ostirala). ||| **Ordua.** 22:00 ||| **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. ||| **Antolatzailea.** Dinamoak, Elkar-ekin eta herriko hainbat sortzaile.

Fernando Aire *Xalbadorek* idatzitako *Mendian galdu direnei* bertso sortaren hezurduraren gainean osatu dute "elkartasun ezaren eta elkartasun nahiaren" inguruko ikuskizuna. "Orain dela 44 urteko elurrak ezin du dena zuritu, eta gaur egungo migrazioaren bigabekeriaren aurrean geure zainak agintzen digu isilik ez egoitea", azaldu dute emanaldiaren sustatzaileek. ✨

||| IKUSKIZUNA |||||

3 lagun. Orain 44 urte hiru migratzaile hil ziren Ezpeletako mendi elurtuetan abandonatu ostean.

Hainbat diziplina. Ikuskizunean bertsoa, abestia, dantza, poesia, irudia, bideoa eta antzerkia uztartuko dituzte. ✨



'Hiru lore beltz' emanaldiaren sustatzaileetako batzuk. |||

||| BESTERIK |||||

1 Gaztetxearen 12. urteurren jaia Azpeitiko Gaztetxearen 12. urtemuga ospatuko dute baltsa jaitsierarekin, bazkariarekin eta kontzertuekin. ||| **Eguna.** Uztaileak 15 (zapatua). ||| **Ordua.** Egun osoa ||| **Tokia.** Gaztetxea.

2 Areto eta euskal dantzak, aukeran Azpeitia Dantzanen azken bi emanaldiak izango dira datozen asteburuetan. Dantzak eskolako ikasleek, Jose Mari Orbegozok eta Amaia Gonzalezek emanaldia eskainiko dute hilaren 9an, Soreasu antzokian. Sahatsa taldekoek, berriz, kalera aterako dituzte Euskal Herriko hainbat dantza hilaren 15ean. Plaza Txikian eta plazan eskainiko dute emanaldia. ||| **Eguna.** Uztaileak 9 eta 15. ||| **Ordua.** 20:00 ||| **Antolatzailea.** Udala.

3 Karting eta supermotard erakustaldia Karting eta supermotard erakustaldiaren 4. edizioa izango da. Parte hartzeko izena Etxe Zuri tabernan eman daiteke hilaren 23ko 11:30ak arte. ||| **Eguna.** Uztaileak 23 (igandea). ||| **Ordua.** 15:00 ||| **Tokia.** Damaso inguruko errepeidea. ||| **Antolatzailea.** AZTE. ✨

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

TONBOLA

uztarria

AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

2 boleto
1 euro


ZOZKETA BEREZIAK
AZKEN EGUNEAN

OPARIAK

- Mugikorra.
- Smart watch-a.
- Bi lagunentzako 30 afaritik gora.
- Talasoterapiako zirkuitoak.
- Ile mozketak eta tratamenduak...

Uztailak 22, 23, 24, 25, 30, 31
Abuztuak 1 Erdikale 2n

HITZ GEZIDUNAK

	Zentzumen bat		Pasa		Adi!		Fitxa gordailua		Ontzi bat atolian eramateko ontzi
	Hiltzailea		Gauerokoa		Atmosfera-ko gasa		Kontso-nantea		
	Nafarroako herria						Kontso. bustia		
	Intsektu mota						Ez on		
* Deitura		Otarre txiki							
* Izena		Auzuneak							
				Interjekzioa			Soto		
				Desagerrarazi			Zain		
Akuriak					Harribitxi mota				
Bozkario					Toka, naiz				
							Nahastura trinko		... egina, erabat mozkortuta
							Kontso-nantea		
Hizki+ grekoa			Txori bidaiaria					Gizartearen hasieran	
Galdetu			Bizkai-tarren bike					Rutenioa	
							Labore hauts		
							Bokala		
Neka, una				Ezeztatuak					

 Egilea: Luma

* Margolari azpeitiarra

SUDOKUA

	9	8			2			
			6	3				
5							9	3
	2	9			3	8		
		4		6		7		
		1	7			4	3	
2	4							1
				1	7			
			2			6	5	




Il Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Uztailak 18 (asteartea) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jerglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 ZER DA

2 BENO BANOA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

K	V	U	T	V	K	U	•	I	K	V	•	
N	I	R	I	•	U	N	D	N	V	A	T	I
I	G	•	A	R	A	E	N	A	•	R	O	•
•	E	R	•	O	N	E	N	A	M	Z	A	G
A	T	A	G	A	•	K	A	I	U	K	•	•
O	L	A	T	Z	•	O	•	L	A	T	•	•
A	•	T	A	R	R	•	•	A	•	•	•	•
T	T	•	N	A	N	•	•	•	•	•	•	•
A	R	I	A	G	A	R	I	H	•	•	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•

SUDOKUA

7	8	5	2	9	4	6	5	7
1	8	5	8	1	7	3	2	4
2	4	7	3	5	6	9	8	1
6	5	1	7	2	8	4	3	9
8	3	4	9	6	5	7	1	2
7	2	9	1	4	3	8	6	5
5	7	6	4	8	1	2	9	3
4	1	2	6	3	9	5	7	8
3	9	8	5	7	2	1	4	6

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Harmaila 2 Arranoa

|||UZTARRIAREN EKAINEN LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Axun Etxaniz Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 195. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6

ELKARRIZKETA Valen Garcia, Antzerki Topaketan kartelaren egilea

“Picassoren ‘guernica’ obran inspiratuta egin dut kartela”

Valen Garcia (Gasteiz, 1970) Azpeitiko bizilagunak egindako kartelak iragarriko ditu datorren udazkenean herrian egingo diren XXXV. Euskal Antzerki Topaketak. **Lehen aldiz aurkeztu al zara kartel lehiaketara?**

Ez, 1991n egin nuen lehen lana, eta, ordutik, behin baino gehiagotan aurkeztu naiz deialdira. 2009an ere nire kartela aukeratu zuten. Halakoak egitea eta sariak jasotzea beti da pozgarria.

Nondik datorkizu diseinurako zaletasuna?

Diseinatzaile grafikoa naiz lanbidez, eta dudan afizioetako bat da argazkilaritza. Batzuetan, argazkilaritza baliatzen dut nire diseinuak ontzeko osagarri bezala. Gainera, antzerkiarekin lotutako lan batzuk egingo naiz, hala nola Madrilan egiten den Nazioarteko Antzerki Jaialdirako aplikazio grafikoak egiten ditugu.

Zertan inspiratu zara kartela diseinatzerakoan?

Picassoren *Guernica* obran inspiratu naiz kartela egiterakoan; hain zuzen ere, XX. mendeko koadrorik famatuenean. Aurten, 80



Garcia kartel irabazlea eskuetan duela. Valen Garcia

urte dira artelan hori margotu zuela, eta han ageri diren hainbat ikono hartu dut fikziozko pertsonaia bat sortzeko. Fikziozko pertsonaia bat da karteleko protagonista, eta saiatu naiz pertsonaia hori drama eta komedia kontzeptuak nahastuta gorpuzten. Ekialdeko kutsua duen eszena batean irudikatuta ageri da, eta koadroan ageri diren zati ezberdinek osatzen dute; izan ere,

zaldi burua eta otso buztana ditu.

Ategin duzu antzerkia?

Bai, asko, gainera. Komedia generokoak ditut gustuko.

Topaketak gerturatu ahala, herriko hainbat txokotan ikusgai izango da zure lana...

Beti da pozgarria lanak txoko eta euskarri ezberdinetan agertzea eta jendeak horiek ikustea.

Elkarrizketa osoa uztarria.eus-en

EFEMERIDEAK

1523

Juan Antxieta musikaria hil zen gaixotasun luze baten ondorioz.

1804

Korrejidorearen debekua.

Korrejidoreak debekaturik zituen zezenketak, dantzak eta gainontzeko jaialdiak, eta alkateak jakin gabe bando bat zabaldu zuen gaueko ekintza guztiak bertan behera zirela adieraziz.

1972

Izarraitz pilotalekua.

Nikolas Zubeldiak egindako Izarraitz frontoia inauguratu zuten.

Iturria: Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarria.

BIDEOAK



Zezena, Loilako pasean.

KIMU BAT GARDEN

KIMU BAT 25 urte /
Urrestila bidea. Azpeitia
943 15 00 85

Zeure esku dago

IVAN RIDOLFO pizza egilea

Azken urteotan askotan entzun eta irakurri dugu gizentasuna XXI. mendeko epidemia dela. Eta egia da, gaztetxoentzat ez da batere erraza izango gaixotasun horri aurre egitea. Giro "obesigeniko" batean bizi gara, baina etxekoen ardura osoa gurea da; beraiek zaintzeko eskubide dute eta gure betebeharra da haiek zaintzea.

Umeek (orainaldian idazten dut, gauzak asko aldatu direlako) gizentasunera bultzatzen dituen ingurua topatzen dute. Hasteko, ume askori gozo gehiegi duten papilak ematen dizkiete. Hazten ari direnean, gozokiak eskaintzen zaizkie edozein lekutan, ohikoa ere bada sari bezala gozokiak ematea. Ondorioz, nagusitan, sari horiek antsietatea, tristura, estresa, nekea eta abar pasatzeko erabiltzen ditugu.

Elikadura industriari zenbat aldiz erabiltzen ditu marrazki bizidunak umeak erakartzeko eta produktuak saltzeko? Umeen ordutegian telebista janari zaborraren iragarkiz beteta egoten da. Eta ezin ahaztu eskola, akademia eta abarretatik urtebete-tzeetan-eta ekartzen dituzten gozoki poltxatxoek.

Errealitate hori ikusita, gaurko umeek ez dute batere erraza gizentasunari uko egitea. Beraz, badugu etxean zer egin. Txikitatik ohitura egokiak hartuz gero, hobe izaten da. Baina ez ahaztu, beti gaude garai.*

|||||||aitziber aizpuru|||



1. Pizza on baten sekretua?

Kariñoa.

2. Osagai estimatuena?

Urdaiazpiko egosia.

3. Eta, arraroena?

Platanoa.

4. Masa lodia edo fina?

Nahiago dut fina.

5. Aurrez egindako pizza bat jatea...

Garagardo epela edatearen parekoa.

6. Eskari gehien?

Futbola dagoenean.

7. Pizza labanaz eta sardeskaz jatea...

8. Lanaren alderik onena?

Aberastu ez naiz egingo, baina denbora libre dago.

9. Berrikuntzarik?

Garagardoeko masa asmatzen ari naiz.*

📌 Ihintza Elustondo

IRENE ALTUNA
LORADUNA
Loiola-Elda. 26 Tel. 943 81 51 87
www.familialaduna.com

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arenda, 5 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Alar
merjeria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 81 78

Senti
OSASUN ZENTROA
fisioterapia - osteopatia - psikoterapia osasun jarduerak
Jandorriariz 7. behea - 20720 Arkollia
Tel: 943 503 729 / 636 452 851 - www.senti.eus

ORDULARI
Jose de Artea, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

adi
ARTE ETA DISEINU ESKOLA ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak (haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30
Talia 18:30 - 20:00
Jose Artea kalea, 3
943 81 25 08
artediseinu@gmail.com
Matrikula arte osatu zabalik

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnos.: 943 81 55 08
Faxa.: 943 15 03 62

uba
ENBURETATIA
Abokatuak
Fisika
Ingeniaritza
Kontaketa
Gestio lanak
Finanzen administrazioa
Gestio Inmobiliarioa
Tfn. 943 517 333 - 1944 943 517 273
Egitaraz. 416/4 - 1944 943 517 273

Trenetik jaitsi gabe

Logroñoeko lurrunezko trenek liluratu zuten mutikoari areagotu besterik ez zaio egin harrezkero zaletasuna, kantuan edo bidaiatzen ere ibili arren. 📝📷 Mailo Oiarzabal

Pasioa, afizioa eta lana bateratzeko aukera izatea ez da mundu guztiari gertatzen zaion zerbait. Bai, ordea, Juanjo Olaizolari (Donostia, 1965). Burdinbidearen Euskal Museoaren (BEM) zuzendaria, museoa bera martxan jarri zutenetik ari da han lanean. “Egun batzuetan gehiago, besteetan gutxiago”, baina ordu asko eskaintzen dizkio lanari. Handik kanpo ere, trenekin lotutako kontuetan ibiltzea gustatzen zaio; gustatu, eta tokatu ere bai, “libururen bat edo artikuluren bat” idazten ari denetan bezala. 30etik gora liburu idatzi ditu orain arte, guztiak trenen edota trenbideen historiari eta istorioei eskainitakoak. Joan den martxoan aurkeztu zuen azkena, Beasaingo CAF lantegiaren mendeurrena dela-eta idatzi duena.

Trenera igo aurretik liluratu zuten trenek Olaizola, eta trenetik jaitsi gabe jarraitzen du. Jaiotzez donostiarra izan arren, ez ditu urte asko egin Gipuzkoako hiriburuan bizitzen. Jaioberria zela joan zen familia Logroñora (Errioxa, Espainia); eta hamaika urtera, berri, Valentziara (Herrialde Katalanak), aitarenekin lana zela eta. “Hemengo enpresa batean egiten zuen lan. Logroñon sukurtsal bat ireki zuten, gero beste bat Valentzian... Ez zen guardia zibila! Ezta trenbideetako langilea edo Correosekoa ere”, azaldu du, irribarrez.

Zortzi urtez Valentzian bizi ondoren itzuli zen Logroñora, soldadutza egitera. “Urte bat alferrik galdu” ondoren, Donostian bi urtez



bizi izan zen, Gasteizen beste bi, eta han zegoela hasi zen gerora Azpeitiko museoa izango zenaren proiektuaren bueltan lanean. Bost urtez Zumarragan bizi ostean, ordurako Azpeitian lanean ari zela, iritsi ziren Olaizola eta emaztea gaurko bizitokira, orain dela 20 urte.

Lehen hitza, ‘tren’

Baina Logroñora itzuli beharra dago, Olaizolaren trenetik pasioaren sustraiak aurkitzeko. Donostiatik hara joan zirenean, tren estazioaren parez pare zegoen etxe batean jarri ziren bizitzen. “Etxetik ikusten ziren trenak eta ni harrituta gelditzen nintzen, haiek ikusten. Gainera, garai hartan Errioxako linean lurrunezko trenak ibiltzen ziren; Logroñon hala izan zen 1975a arte. Eta ni liluratu egiten ninduten tramankulu haiek”.

Txikitik trenak zenbateraino gustatzen zitzaizkion adierazteko eskolako pasadizoa ekarri du gogora. Bera ez da oroitzen, baina amak esanda daki idatzi zuen lehen hitza *tren* izan zela. “Ez nuen idatzi *papa, mama* edo horrelako zerbait; idatzi nuen *tren*. Irakaslea harrituta geratu omen zen, haur txiki batek lehen aldiz idazteko hitz arraroa zen berentzat, zaila, horrenbeste kontsonanterekin eta”.

Donostiako Orfeioan kantari

Orain “euria egitea nahi izanez gero” kantatzen hasiko litzatekeela dioen arren, Donos-



2



3

1. Juanjo Olaizola, gaur egun. 2. 1992ko argazkian, lurrin trenaren ondoan, Loiolan. 3. Urolako tren zaharrari atera zion aurreneko argazkia da irudikoa. Zumaian egin zuen, 1982an.

tiako Orfeoiko kide izan zen Olaizola gazte sasoian. “Institutuan irakasle bat genuen orfeoikoa zena, eta hark eskaini zigun aukera hiruzpalau ikasleri. Bi edo hiru urte egon nintzen han. Lanean hasi nintzenean, eta, gainera, hasieran Gasteizen egon nintzenez, utzi egin behar izan nuen”, kontatu du. Abesbatza ezagunarekin egindako saio bereziren bat baino, Parisera egin zuten bidaia bat du gogoan: “Trenez joan ginen, gainera, *Puerta del Sol* espresean; beraz, zoragarri”.

Orfeoian aritu arren kanturako abilezia

handirik ez duela aitortuta, musika klasikoa entzutea izugarri gustatzen zaiola dio, bere zaletasun handienetakoa da. Museoko bulegoan lanean ari denean ere behin baino gehiagotan izaten du jarrita, xuabe-xuabe; Uztariaren bisita jaso duenean ere hala zeukan. Eta etxean ere musika mota hori izaten du soinu-banda ohikoena. Musika klasikoren barruan bereziki gustukoak ditu, gainera, requiemak, “eta alderdi horretatik zortea izan nuen –nabarmendu du–, orfeoiarekin requiem garrantzitsuenak kantatzeko aukera

Katu familia

||| Katuak zaintzeko denbora ere gustura hartzen du Olaizolak. Etxean dutenaz gain, museoan beste bospaseiren ardura hartua dute berak eta emazteak. “Museoko katuak dira”, dio, eta haiei txertoak eta abarrak zuzen emateaz arduratzen direla azaldu du. Katuek jana eta ura eskura izan dezaten koloretako hainbat poto jartzen ditu museoaren zuzendariak bere bulegoaren kanpoaldean.

izan nuelako: Mozartena, Berliozena eta Verdiarena”.

Abstinentzia-sindromea

Bidaia zela da Olaizolaren beste zaletasunetako bat. “Asko gustatzen zaigu Portugalera joatea, emaztea eta biok urtero joaten gara”. Hondartza ez zaiola gustatzen dio donostiarrrak, “eta mendia gutxiago. Niretzat, ariketa egitea anti natura da. Hara, zer amarru asmatu ditugun –dio, mahai gaineke ordenagailua eta erakutsita–, lanik ez egiteko! Beraz, ariketa fisikoa egitea gure eboluzioaren gutiz kontra dihoala iruditzen zait”.

Olaizolari “makinak” gustatzen zaizkio; horrela, joaten den tokira joaten dela, trenak, tranbiak edota tren museoak ez ditu urrutizaten. Eta Kanarietara egin zuen bidaiaren oroitzapen onik ez dauka, ez: “Behin joan nintzen, eta ia-ia abstinentzia sindromea izan nuen, han ez zegoen trenik. Orain bai, Tenerifen tranbia jarri dute; agian, moldatuko nintzateke”. Trenekin lotuta ezagutu dituen tokien artean, Yorkeko museoa (Erresuma Batua) eta Blonay-Chambyko (Suitza) tren turistikoa azpimarratu ditu.

Ariketa fisikoa uko egiten diola eta jarraitzaile moduan ere kirolak batera ez duela erakartzen esan arren, gaztetako pare bat ‘bekatu’ aitortu ditu BEMeko zuzendariak: “Bizikletan asko ibiltzen nintzen gaztetan, aitortu beharra daukat; Valentziatik Donostiara etorrita nago bizikletaz. Eta maratoi bat ere egin nuen, entrenatu gabe gainera, Valentziakoa; gerora indar handia hartu duen proba da, baila guk egin genuenean hirugarren edizioa edo izango zen. Horrekin bukatu nituen kirolean egin beharrekoak! Lau ordu eta erdi behar izan genituen, lagun bâtek eta biok, apustu antzeko bat betetzera joanda. Erratza atzetik genuela iritsi ginen. Maratoia bukatu, garagardo bat edateko eseri, eta ezin altxatu; eta, gero, astebete giharretako mina ezin kenduta”. Trenean ez da horrela nekaten. ✖

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (UZTAILA)

1-2-3-5-7-12-14

Beristain (Azpeitia).
943 811949

6-13-18-24-25-28

Eizagirre (Azpeitia).
943 811274

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Uztailaren 26an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoa: 11:00-20:00 KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ LIBURUTEGI LIBREAK.

Liburuak trukatzea eta irakurzaletasuna bultzatzea helburu, liburuak kalean eta guztion eskura jarritz, bost liburutegi libre kokatu dituzte herrian zehar, Azpeitiko Udalak eta Udal Liburutegiak elkarlanean.

8-9-10-17-19-22-23-26
Alberdi (Azpeitia).
943 815974

GAUEZ, URTE OSOAN
Beristain (Azpeitia).
943 811949

GARRAIOA


ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegia osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

JOXE MARI ARANBARRI

Azpeitia-Hazparne egitasmoko parte-hartzailea

“Iparraldeko ibilaldiak gustatu zaizkit gehien”

‘Azpeitia-Hazparne’ egitasmoko sei etapak egin dituenetako bat da. Ekimenaren balorazio “oso positiboa” egin du, jende askok parte hartu duelako.  Elena Margüello

Nolatan egin dituzu ‘Apeitia-Hazparne. 30 urte. Bi herri pausoz pauso’ egitasmoko etapa guztiak?

Soldadutzatik etorri eta hainbat urtez Lagun Onak Mendi Bazkunan aritu nintzen. Gehiago edo gutxiago, inguruan egon naiz beti. Etxeko arazoengatik lagata egon nintzen denboraldi batez, baina anai-arrebekin etxeko kontuak banatu nituen egitasmo osoa egin ahal izateko. Horregatik egin ditut etapa guztiak.

Parte-hartzeari dagokionez, zer balorazio egiten duzu?

Azken urteetan pertsona gehien bildu duen egitasmoa izan da. Hilean behien egin ditugu irteerak, eta uste dut etapatik etapara eman dugun tartea gustatu egin zaiola jendeari, prestatzeko aukera izan duelako. Lehenengo etapen gutxi izan ginen, eguraldia ere ez genuen lagun izan, baina bigarren etapatik aurrera ehun lagundik gora elkartu ginen.

Hazpandarrekin harremanak indartu dituzue?

Bai. Kopuruz hango parte-hartzaileak Azpeitikoak baino gutxiago izan dira, baina bai. Hondarribiara arteko zatiak azpeitiarrok gidatu ge-

nituen, eta Hondarribiatik aurrerakoak hazpandarrek. Dena den, egitasmo osoan elkarlanean aritu gara, elkarri lagundu diogu.

Zein izan da etapa zailena?


Kontua ez da zaila edo erraza. Etapa bakoitzak 25-30 kilometro zituen, eta prestatuta egotea eskatzen du horrek.

Eta politena?

Iparraldeko ibilaldiak gustatu zaizkit gehien. Pixka bat ezagutzen nuen ingurua, baina asko gustatu zaizkit bertan ikusi ditugun bazterrak. Donostiatik Hondarribiara egin genuen zatia ere asko gustatu zitzaidan. Iparraldeko paisaiak, hala ere, gutxiago ezagutzen nituelako edo, atseginago egin zaizkit.

Zer berezitasun izan du ‘Azpeitia-Hazparne’ egitasmook?

Jendeak mendia gustoko duela, mendian ibili nahi duela eta horretarako erraztasunak jarri behar dizkiogula erakutsi du. Adibidez, urrun dauden mendi bueltak egiteko autobus zerbitzuak eskatzen ditu jendeak, eta halakoak eskaini behar ditugu. Bestalde, gustatuko litzaike jendeak ideia berriak proposatzea, ekarpenak gustura jasoko ditugu.*



1

1. Aranbarri ibilaldietako batean. 2. ‘Azpeitia-Hazparne. 30 urte. Bi herri pausoz pauso’ egitasmoko sei etapak egin zituzten herritarrek. 3. Kanbo-Hazparne azken etapen parte hartu zuten lagunak. 4. Aranbarri, etapetako batean.



2



3



4

Jazmina

Bizikletan, beti bizikletan ni, Azpeitian, Renon, Virginia Cityn, Habanan edo Gasteizen, beti bizikletan ni, eta Caballo de Pica eta Gabriel Celaya kaleak gurutzatzen diren lekuan, oinezko espaloia pasatu eta bertara, neska bat noraezean, ezker-eskubira begira, nondik datorren, nora doan ez dakienaren pausoan, ez harutz eta ez honutz, geldi, laguntza eske. Eta parean gelditu natzaio, mundua salbatzeko batailoikoa naiz ni ere, eta laguntza behar duzu?, galdetu orduko nik, lagun baten zain dagoela, berak. Baina, bide batez, eta nik besterik esan baino lehen, “ondo da, laguntza behar zenuela iruditu zait, kaleotan galduta zenbiltzala”, edo halakoren bat asmatu baino lehen nik, ea telefonorik badudan bota dit berak, eta baietz nik, eta ea dei bat egiten utziko diodan, eta dei bat besterik ez bada, baietz nik, eta zenbakiak diktatu dizkit eta markatu ditut nik banan-banan. Eta beste aldeko harian inork ez du telefonorik hartu, badakizu, “telefono hau itzalita edo estalduratik kanpo dago, saiatu zaitez geroago”, edo antzeko mezu erregagarriren bat, zuri momentuan batere laguntzen ez dizuna eta, bai, aldiz, amorrarazten. Eta horrela esan diozu neska gazteari, dena delako adiskidearen telefonoa itzalita dagoela, edo estalduratik kanpo, ez duela erantzuten, eta orduan galdetu diozu zergatik dagoen juxtu hortxe, Caballo de Pica eta Gabriel Celaya kaleek bat egiten duten puntuan, eta laguna hantxe ondoko karrera baten, behebarruan, bizi delako, eta galdetu diot ea badakien zenbatgarren pisuan bizi den, eta baietz berak, eta esan diot jotzeko txirrina orduan, eta berak ezetz, lagunaren amak ez duela neska bere semearen inguruan ikusi nahi, eta zergatik, eta ez dakiela zergatik esan dit neskak, eta a ze gauza arraroa esan diot. Eta “bai” esan du berak, “baina ez nau bere semearen inguruan nahi”. Eta nola duen izena galdetu diot, eta Jazmina erantzun dit, “eta lagunak?”, galdetu diot, eta




|||||||miel a. elustondo|||

|||Eta parean gelditu natzaio, mundua salbatzeko batailoikoa naiz ni ere, eta laguntza behar duzu?

Luisef entenditu diot, eta “Luisef?”, galdetu diodanean, berak baietz, Luisef esan dit, edo horixe entenditu diot nik bigarren aldia ere, marokoa dela esan dit orduan, eta Yusef pentsatu nik orduan, baina ez dakit, ez naiz ni orain besteren izenak kanbiatzen hasiko, nahikoa kanbiatu dizkigute guri geure bizian, eta banoala esan diot Jazminari, eta ea berriz hots egiterik daukadan eskatu dit. Eta berriz jo dut telefonoa, Jazminak zenbakiak diktatu beharrik gabe ere, ze Luisefen numeroa telefonoan grabatuta geratu da eta, eta lehena go esandakoa esan diot berriz Jazminari, telefono petralak behin eta berriz eta askotan erregagarri esaten diguna. “Telefono hau itzalita edo estalduratik kanpo dago, saia zaitez geroago”, eta orduantxe esan dit izena, Jazmina, nik haren izena askoz gorago esan badizuet ere. Eta puntu Jazmina. Eta maiuskula. Eta segi bizikletan saninaziotara...*





Zure lasaitasuna gure esku

Sedazio bidezko tratamenduak

GRUPO
 horzkari
hartz osasun klinika

Nabarro larreategi 1, behea
20200 Beasain

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 Azpeitia

Tel. 943 089 089

ESKELA ZERBITZUA uztarria.eus-en



Carmona Ehorztetxea

Pablo VI, 7

**Asteko egun guztietan
24 orduko zerbitzua**

Telf: 943 15 15 14

Mobila: 629 43 42 67

30€

uztarria

UZTARRIA ZERBITZU GAITUR EGOKIAK

Uztarria

Perez Arregi 1, behea

**Astelehenetik ostiralera,
09:15-13:15
15:00-19:00**

Telf: 943 15 03 58



BERTAKO TOMATEA

FRUTARIK FRESKOENAK EGOKI JANARIDENDAN



BASERRIKO LETXUGA

MELOKOTOIA



BRINOIA



PARAGUAIOA

MIXURKA- ARBELETXEKOA



DEPILATU

EDO EGUZKIA HARTU?

DAGOENeko Hori **EZ DA ARAZOA**



no+vello



ORAIN SUN&SAFE-REKIN

Hartu eguzkia edo uva izpiak
saioa baino 48 ordu
lehenago edo beranduago

NO+VELLO AZPEITIA

C/ Idelfonso Gurrutxaga 8 Behea
Tel. 94 304 44 22 - azpeitia@nomasvello.com